



Oinarrizko Errenta Unibersala

Ideia ona baino gehiago

Euskadin, indarrean da 80ko hamarkadatik **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE)**. Gitxieneko sarrera honeei esker, 65.000 familia inguru, **118.000 persona, gitxieneko duintasunez bizitzeko moduan da**; era berean, pobretasun eta bazterketa indizeak Euskadin, batez beste, Espainian eta European baino baxuagoak izatea dakar.

Halanda be, eta indarrean dan azken 30 urteotan, DBEa bazterketaren aurkako burrukan bitarteko garrantzitsua izan dala autortuta, azken urteetan bitarteko barria agertzen ari da eztabaidetan, **aitatutako DBEaren ezarpenean antzemandako hainbat arazo konpondu daikelakoan. Oinarrizko Errenta Unibersala (OEU) da berau.**

Zer da OEUa?

Oinarrizko errenta estatuak ordaintzen dauan sarrera da; herritarren eskubidetzat hartzen da eta eskubide osoko kide bakotxari edo gizartean bizi dan bakotxari emoten jako, baita lan ordaindua egin gura ez badau de, aberatsa edo behartsua dan kontuan hartu barik edo, beste era batera esanda, izan leikezan beste errenta-iturri batzuk aparte itzita, eta nogaz bizi dan axola barik. Laburbilduz: **oinarrizko errenta, baldintza bako diru-esleipen publikoa da herritar guztientzat.**

Honetan datza alderik handiena oinarrizko errentaren eta *Ongizate-estatueta*ko ohiko diru-laguntza publikoaren artean: **lehenengoa, baldintza bako dala eta bigarrenak, baldintzatuak** (egoera batek: *pobretasuna, desgaitasuna, langabezia...*).

Gizarteratzerako Gitxieneko Errentak (GGE), esate baterako DBEa, baino aukera hobea ete da OEUa gizarteratze eraginkorrerako?

- GGEak **pobretasunaren eta langabeziaren tranpa** ezagunetan jausi daitekez, gizatalde jakin bati pobretasun mailetan iraunarazoz; OEUak muga hori gainditu egiten dau.
- **OEUak GGEen onuradudek jasaten daben "estigmatizazioaren" orbana errotik ezabatzen** dau. OEUa 'ex ante' laguntza da, hau da, **behartsu izan aurretik edo behartsu izatera ez heltzeko jasoten da** eta GGEa 'ex post' laguntza da.

- **OEUak lagun askok ordu gitxiago lan egitea** eta, ondorioz, **euren egoera personala hobetzea ahalbideratzen dau**, lanaldi laburraren bidez. **Lana banatzeko lagungarri** izan daiteke.
- **OEUak arriskuak hartzeko bildurra uxatu** egiten dau eta **barrikuntza** handiagoa ahalbideratzen. Gainera, enpresa-egitasmo txikien kapitalizazioa erraztu daite eta, aldi berean, bizirik irauten laguntzen dau, egitasmo honeen arrakastaren menpe egon barik.
- **OEUak batera altxatzen ditu behin-behineko lanen soldatak, langileei negoziatzeko gaitasun handiagoa emoten deutse.**
- **OEUak ez dau bereizketarik** egiten lan ordaindua egiten dabenen eta etxeko lana edo borondatezko lana egiten dabenen artean: danek jasoten dabe errenta bat eta, ondorioz, gehitu egiten dau **aitatutako hiru lanen arteko parekatzea.**
- **OEUak administrazioaren sinplifikazioa** eragiten dau, indarrean dan laguntsen sistemak dakarren kontrol eta burokrazia murriztuz.

Bideragarria da gaur egun OEUa?

Hainbatek egindako azterlan garrantzitsuek erakusten dabenez, guztiz bideragarria da OEUa finantzatzea Espainian. Honek **zerga-erreforma sakona** eskatuko leuke, Estatuaren sarrerak langile eta kontsumitzaileek ordaintzen doguzan zergez gainera, kapitalaren eta enpresa handien errentak izan daitezcan, eta baita **zerga-iruzurraren aurkako benetako burruka** be.

Aberastasun nahiko dago OEUerakok, Ekonomisten Euskadiko Kolegioko ordezkariak oraintsu adierazo dabenez, baina bere banaketa guztiz bidegabea da.

OEUak ez leuke "dei-efektua" eragingo?

"Dei-efektua" deitutakoaren **benetako eragileak, herrialde aberatsen eta herrialde behartsuen arteko desbardintasun** ekonomiko, politiko eta sozialak dirala gogoratu beharra dago.

Beste alde batetik, "dei-efektua" dalakoaren logika horren ikuspuntutik historian zehar ez eitekean inongo aurrerapenik lortuko, ezta DBErik be.

Proposamen zehatz batzuk

- **“Ontariok (Kanada) oinarrizko errenta unibersala probatuko dau bere lurraldean”** 2016/03/8. Herrialdeko uririk garrantzitsuenak diran Toronto eta Ottawa barne hartzen dituan Ontario Kanadako probintzian (13,5 milioi biztanle), 1.000 dolaretako (900 euro inguru) errenta unibersal eta hilerokoa herritar guztientzat ezartzea esperimentatuko dabe 2017tik aurrera.
- **“Mincome egitasmoa Dauphinen, Kanadan”** Dauphin 7.000 biztanleko Kanadako alkarteak oinarrizko errenta jaso eban Mincome deituako sistemaren bidez. 70eko hamarkadan izan zan.
- **“Finlandia oinarrizko errenta unibersala probatzen hasi da”** 2017.eko urtarrilak 3. Finlandiak astelehen honetan ekingo deutso oinarrizko errentari buruzko saiakuntzari. Hilean 560 euro emongo deutsez urte biz langabezia dagozan 2.000 herritarri.
- **“Utrechtek hilean 1.000 € emongo deutsez herritarrei 2016tik aurrera: oinarrizko errenta proban”** 2015/07/12. Zehatz-mehatz, Utrecht Holandako uriak garatuko dau esperientzia hau datorren udazkenetik aurrera.
- **“Oinarrizko errentaren afrikar saiakera”** 2017/01/08. Soldata jaso musu-truk. Eurek dana emoten badabe be. Ikusiko dabe... Eta euretako inor ez da Finlandian bizi, Kenyan baino. Afrikar kasuan, pertsonako 20 euro inguru jasoten dabe, 12 urtez, 6.000 lagunek.
- **“India herritarrei oinarrizko errenta emotearen aukera aztertzen ari da”** 2017.eko urtarrilak 11. Arvind Subramanian Indiako gobernuko sailburu ekonomikoak Oinarrizko Errenta Unibersala martxan jarriko dala aurreratu eban.
- **“Suitzak ‘Ez’ esan deutso herritar guztientzako hileroko 2.300 eurotako oinarrizko errentari”**

Hausnartzeko

Cive Pérez, “bada garaia erosotasun ideologikoko eremutik atarateko eta eretxi publikoaren aurrean egia batzuk aldarrikatze gauza diran ahots ausartak sortzeko. Horreetako bat hauxe da: lanak ez dauala orain dala hamarkada bat izan eban eraginik izango, gizarte eratueta ezagutu dogunaren antzekorik hain zuzen, bakarrik herritarren %20arentzako kalidadezko lana eskainiko dauan gizarte-eredurantz goazalako. Nire ustez, alderdi aurrerakoiek eta gizarte mobimentuek, zer datorren jakina, OEUa defendatzeko obligazio etiko eta morala dabe.”



Gehiago sakontzeko

- Oinarrizko Errenta Sarea <http://www.redrentabasica.org/rb/>
- Bideoak XVI. Sinposioa <http://www.redrentabasica.org/rb/videos-xvi-simposio/>
- Ongizate-estatutik harago. Alkarrizketa. Daniel Reventos <http://www.sinpermiso.info/textos/index.php?id=996>
- “Oinarrizko Errenta Unibersalaren mito eta egiak: eztabaida martxan da” <http://www.attacmadrid.org/?p=13945>
- Arrazoi gehiago Euskadiri oinarrizko errenta preminazkoa dala erakusteko. Angel Elias Ortega <http://www.redrentabasica.org/rb/mas-razones-para-la-necesidad-de-una-renta-basica-en-euskadi/>